

KARTELAREKIN LANTZEKO JARDUERAK:

HAUR HEZKUNTZA eta LEHEN HEZKUNTZA

HELBURUAK:

- Munduko emakumeen aniztasunari buruz ohartu.
- Munduko lurralde desberdinetako emakumeen ezaugarriak: larruazala, janzkera, ilea..., komentatu

HAUR HEZKUNTZA eta LEHEN HEZKUNTZAKO LEHENENGO ZIKLOA. AKTIBITATEAK:

1. JARDUERA. Ideia zaparrada.

Materiala: STEE-EILAS-eko kartela.

Metodologia:

1. Ikasleek ikusten dutena ahoz komentatu.
2. Haien auzoan edo eskolan horrelako emakumeak dauden ala ez eta hauei buruz zeozer dakiten, hau da, nongoak diren, zer hizkuntzan hitz egiten duten, ... esan.
3. Gelako inork hauetako batekin bere burua identifikatzen badu, berari buruz hitz egin: janaria, abestiak, ipuinak, janzkera,...

2. JARDUERA. Hormairudi bat egitea

Materiala: STEE-EILAS-eko kartela, pinturak, gometzak, oihalak, paperak...

Metodologia:

1. Ikasleak talde txikiak osatu eta talde bakoitzari karteletako fotokopia bana eman.
2. Fotokopian material desberdinak erabiliz, hau da, pinturak, gometzak, oihalak, paperak eta abar konposaketa bat egin.

LEHEN HEZKUNTZA: BIGARREN ETA HIRUGARREN ZIKLOA. AKTIBITATEAK:

1. JARDUERA. Ideia zaparrada. DBHrako proposatzen dugun 1. jarduera.

2. JARDUERA. Emakumeak munduko mapa mutu batean kokatzea.

Materiala: STEE-EILAS-eko kartela, munduko mapa mutu bat.

Metodologia:

1. Mapa mundi mutu batean kontinenteak identifikatu.
2. Karteletako emakumeen ezaugarri fisikoak kontuan izanik, mapan kokatu.
3. Emakume ezberdinetako informazioa jaso eta mapan bertan itsatsi.

DBH eta DBH 2 ZIKLOA/DBHO

HELBURUAK:

- Munduko emakumeen egoerari buruzko hausnarketa egin.
- Munduko lurralde desberdinetan emakumeek jokatzen duten rola aztertu: lana, familia, kultura, hezkuntza, gizartea...

DBH. AKTIBITATEAK:

1. JARDUERA. Ideia zaparrada.

Materiala: STEE-EILAS-eko kartela, post-itak, boligrafoa edo arkatza.

Metodologia:

1. Irakasleak ikasle bakoitzari 2 post-it banatuko dizkio.

2. Arbelean STEE-EILASeko kartela jarriko du.
3. Pentsatu gabe, ikasleek kartela ikusterakoan zer datorkien burura bi hitz edo esaldietan post-itetan idatziko dute.
4. Irakasleak jaso eta irakurri ondoren arbelean itsatsiko ditu. Itsasterakoan sailkapen mota desberdinak egin ditzake: Gizarte arloarekin lotutako hitzak edo esaldiak zutabe batean: lurralde desberdinak, etnia, munduaren banaketa..., eta beste zutabeen argazkia ikusterakoan sortutako emozioak. Edota: ideia materialak, janzkera, dirua, ogibidea, eta sozialak: desberdintasunak, pobrezia, aberastasuna....
5. Ideia guztiak irakurri eta gero ondorioak aterako dira.:
 - Zer ezagutzen duten emakumeen egoeraz lurralde desberdinetan, berdinak garen guztiak ala ez, Zergatiak, justua den ala ez, zein den gure papera...

2. JARDUERA: Nongoak dira?

Materiala: STEE-EILAS-eko kartela, munduko mapa mutuak, folioak, rotuladoreak, boligrafoa edo arkatza.

Metodologia:

1. Irakasleak ikasleak 4-5 laguneko talde txikitara banatuko ditu, talde bakoitzean idazkari bat izendatuko delarik.
2. Arbelean STEE-EILASeko kartela jarri. (Lana errazteko kartelaren kopia egin daitezke eta taldeetan banatu.)
3. 5-10 minututan ikasleek pentsatu behar dute emakume bakoitza nongoa izan daiteke.
4. Folio txuri baten idazkariak emakume bakoitza lurralde batekin lotzeko arrazoiak jasoko ditu: arraza, janzkera....
5. Mapa mutuan talde bakoitzak kokatuko ditu emakumeak.
6. Talde bakoitzak 3-4 emakume hartuko ditu eta bakoitzaren bizimodua deskribatzen saiatuko da: bizilekua, lanbidea, familia mota... (Emakume horren bizitzako egun bat idaztea ere beste alternatiba izan daiteke)
7. Talde handian komunean jarriko dira "biografia" guztiak. Ikasleak bizimodu desberdin horiek arrazontzen saiatuko dira.
8. Azaldutako guztiarekin ondorioak atera daitezke:
 - Bizimodu oso desberdinak daudela, zergatiak, ona ala txarra al den, zer egin daiteken egoera desberdin horien aurrean....

DBH 2. KIKLOA / DBHO

Eta hauetan sakontze maila handiagoa izan behar da. DBH 1. Ziklorako jarduerak abiapuntu bezala hartuta:

1. JARDUERA. Ideia zaparrada.

- Ideiak bota eta gero mota hauetako hausnarketak egin daitezke:
 - Zer emakume ospetsu ezagutzen ditugu?, nongoak dira?
 - Emakumeei buruz hitz egiterakoan zer tonua erabiltzen da? Zer motatako berrietan emakumeak dira protagonistak?. Horretarako egunkari desberdinak, testu liburuak edota ipuinak aztertu daitezke.
 - Beste lurraldetako emakumeen informazioa al dugu? izan dugunean, zergatik? zer jaso dugu? zer momentutan iritsi zaigu?
- Ondorioak atera eta gero, artikulua bat idatzi daiteke edo debate bat egin. Horretarako ikasleek dokumentazio gehiago beharko dute: Internet, prentsa....

2. JARDUERA: Nongoak dira?

- Emakumeak lurralde desberdinetan kokatu eta gero, lurralde desberdinetako emakumeen egoera aztertu. Horretarako iturri desberdinak erabili daitezke: Internet, prentsa, publikazio desberdinak, EMAKUNDE, GKE desberdinak... Taula eta estatistika desberdinak aterako dira.
 - Emakumeen ogibide nagusiak lurraldeen arabera.
 - Lurralde desberdinetako jaiotze-tasa.
 - Lurralde desberdinetako per capita errenta.
 - Emakume hildako-tasa
 - Ikasketak, bigarren mailako ikasketak burutzen duten emakume kopuruak.
 - Emakumeen gaixotasunak....
- Ondorioak atera eta gero prentsa artikulua bat idatzi eta komunikabide desberdinetara bidali.
- Ikastetxean martxoak 8aren inguruan munduko emakumeen egoerari buruzko mahai-ingurua egin daiteke. Horretarako erabili dituzten iturrietako arduradunak gonbidatu daitezke.